

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

86 positibo berri
1.757 hildako EAEn
8.787 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

311 positibo berri
548 hildako
12.834 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 261 (+6), ASTIGARRAGAN 52 (+0)

Urumea Bailarako hainbat eskolek greba egin zuten, hartutako neurriak «eskasak» direlako

Ikasgeletara itzulera «seguru eta adostua» eskatu zuten atzo egindako greban. Sindikatuen arabera %65eko jarraipena izan zuen grebak langileen artean, eta Hezkuntza Sailaren arabera, aldiz, %45,2koa izan zen.

URUMEA HEZKUNTZA GREBA

Sindikatu guztiek, ELA, LAB, Steilas, CC.OO. eta UGTek grebarako deialdia egin zuten elkarrekin, eta hauekin bat egin zuten atzo Urumea bailarako hainbat ikastolek; hala nola, Urumea, Elizatxo, Langile, Txirrita, Astigarragako Herri Eskola eta Hernaniko BHI Institutua. Eusko Jaurlaritzak ikasturte berriari aurre egiteko hartutako neurriak eskasak direla salatu zuten, eta ikasgeletara itzulera «segurua eta adostua» exijitu zuten atzoko manifestazioetan.

Pasa den ostegunean, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzan grebara deitu zen, «eskolatara aurrez aurre itzultzeko Hezkuntza Sailaren kudeake-

tak onartezina eta arduragabea izaten jarraitzen duelako, eta hezkuntza munduan lan egiten duten langileen ezinegona salatzeke, eta baita ikasle zein familien ziurgabetasuna salatzeke». Hori horrela, Urumea bailarako hainbat ikastolak egin zuten bat, atzoko grebarekin. Zerbitzu minimoak eskaini zituzten hezkuntza zentro askok, «beharrezkoak baitira».

Zerbitzu minimo horiek eskaintzeko, ordea, ikasturtea hasiteko hartutako osasun neurriak betetzea «zaila» izan da eskola batzuetan. Ikasle gehienak eskolara joan ez ziren arren, zenbaitetan jakinarazi zuten burbuila gelak mantetzea «ezinezkoa» izan zela. Urumea Ikastolan, esaterako, 24 ikasle joan ziren gelara. «Adin



Urumea Ikastolako sarrera atzoko egunean patio orduan, ikaslerik gabe.

eta maila ezberdinetako ikasleak badira ere, ez genuen maila bakoitzeko umeentzat irakasle bat. Hala ere, gehienez 6 ikasle elkartu dira gela bakoitzean eta segurtasun neurriak mantendu dituzte beraien artean», adierazi zuten. Institutuan ere gauza bera gertatu zen atzo.

Bestalde, Elizatxora ez zen ikaslerik joan eta Ereñotzuko Txirrita Eskolan familia bereko bi ume izan ziren eskolan eta be-

raz, elkarrekin egon ziren.

Ikasle abertzaleek ere greba egin zuten

Egoerari aurre egiteko antolokunde eta eragileek grebara deitu zuten, eta ikasle abertzaleek ere bat egin zuten. Hala ere, beraien deialdi propioa egin zuten, beste arrazoien artean, Ikasle Sindikatuak deitutako greba «kolpe mediatiko bat emateko helburuarekin» egin zela uste dutelako. **K**

Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaile lan-poltsa osatzeko hautaketa prozesua ireki da

Hainbat baldintza bete behar dira eta lehiaketa oposizio bidez egingo da hautaketa. Datorren osteguna da eskaerak aurkezteko azken eguna.

HERNANI LAN-POLTSA

Lehiaketa oposizio bidez Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaile lan-poltsa osatzeko hautaketa prozesua ireki zen abuztu bukaeran, eta irailaren 24a da eskaerak aurkezteko azken eguna. Plaza mota administrazio bereziko eskalako, azpieskala teknikoko, edo erdi mailako teknikarien klasekoa da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea Udaleko webgunean dago eskuragai; eta eskabide horretan, hautagaiek adierazi beharko dute eskatzen zaizkien oinarrietako baldintza guztiak betetzen dituztela.

Eskabideak aurkeztu daitezke Udaleko erregistroan, Udalaren www.hernani.eus helbide elektronikoen erregistro elektronikoen bidez, edota aplika-

garria den araudiak dioen beste edozein eratan.

Parte hartzeko hainbat baldintza bete behar dira, eta hauen xehetasunak ere Udaleko webgunean daude, indarrean dauden lan poltsen atalean. Beste baldintzen artean, emakume edo gizonen berdintasunari buruzko ikastaro bat egin izana eskatzen da, gutxienez 150 ordukoa, unibertsitate edo administrazio publiko batek emana. Euskarari dagokionez 4garren hizkuntza eskakizunaren edo horren baliokidearen ziurtagiria izatea ere eskatzen da.

Lanpostuaren eginkizunak

Hamaika egiteko ditu Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaileak; ikusgai daude Udaleko webgunean edota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratutako iragarkian. Lanpostu hau betetzen duenak Kulturarteko Plaza Feministara gerturatzen diren herritarrak artatuko ditu, informazioa emango die eta dagokien zerbitzutarako bideramenak egingo ditu.

Eta orokorrean, Kulturarteko Plaza Feminista erabiltzeko eskariak hartu eta kudeatuko ditu. **K**

'Ene ba!' antzerkia izango da bihar

HERNANI ANTZERKIA

Irailerako antolatutako diren kultur ekintzen programazioaren barruan, *Ene ba!* antzerkia izango da bihar Biterin, arratsaldeko 20:00etan.

Aparkalekuak margotuko dituzte Portu auzoan

HERNANI PORTU AUZOAN

Ostiralean Portu auzoko Ibarrolaburu plaza inguruan dauden aparkalekuak margotuko dituzte, eta lanak burutu ahal izateko, hauek libre egon behar lukete. Bihar hesiak jarriko dituzte, lanak hasi bitartean aparkalekuak husteko.

Kontrakantxan hitzaldia eta afaria, ostiralean

HERNANI KONTRAKANTXA

Ez dugu izaterik aske haiek gabe... Amnistia osoa lemapean hainbat ekitaldi antolatu dira gaztetxean. Ostiralen kartzelaren inguruko hitzaldia izango da Zigor Garro euskal preso politikoa ohiarekin, arratsaldeko 18:30etan. Eta ondoren, bertso afaria 21:00etatik aurrera, Eñaut Martikorena eta Iker Ormazabal bertsoarietekin. Afariko prezioa 10 eurokoa da eta izen-ematea gaztetxean edota Goiz Argin egin ahal da.

Bihar amaituko da udal ikastaroetako izena emateko epea

GOIZUETA UDAL IKASTAROKAK

2020-2021 ikasturtean ikastaroren bat emateko interesa duenak, bihar du proposamena aurkezteko azken eguna. Eskatutako baldintza autonomoa izatea da, eta Udaletxean aurkeztu behar da ikastaroaren deskribapen zehatza.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Eguzki giroa nagusituko da, baina tarteka goi-hodei ugari agertuko da. Goi-hodeiak agertu arren, giro argia nagusituko da egun osoan eta zenbait unetan zeruan urdina nagusituko da. Baiiteke barnealdean tenperatura zertxobait igozea. **Min.18° / Max.28°**

BIHAR Hodeiak ugari egingo dira eta ez da bazterten zaparrada trumoi-tsuren bat edo beste botatzea. Ezezagortasuna areagotu egingo da eta erdi mailako hodeiek eta goi-hodeiek zerua estaliko dute eguneko ordu askotan. **Min.20° / Max.29°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Udalak herritarrak AEKn ikastera animatu ditu, aurtengo ikasturtean ere

Autoikaskuntza eta aurrez aurreko eskolak eskainiko dituzte aurten AEKn, eta matrikula epea zabalik dago.



Astigarragako AEKko zenbait irakasle eta Aintzane Barandiaran, euskera zinegotzia.

ASTIGARRAGA IKASTAROKAK

Iraila aurrera doa eta Udala Euskaltegiak eta AEK-ko euskaltegiak 2020-2021 ikasturtea hasteko prest daude. Aukera zabala dago Urumea bailarako zentro guztietan, eta izen-ematea zabalik dago bailarako euskaltegietan. Hernaniko Udala Euskaltegiak eta AEKn izen-ematea zabalik dago iraila osoan, eta Astigarragan ere eman daiteke izena.

Astigarragako Udala euskara ikasi edo hobetu nahi duten herritarrak animatzen ditu AEK euskaltegiak apurta daitezkeen; eta horren adierazgarri da, Aintzane Barandiaran euskera zinegotzia euskaltegi berataratu izana udalaren babesa azaltzera.

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, udalak diruz lagunduko ditu euskaltegiak arituko diren Astigarragako herritarrak. Arazo ekonomiko larriak dituztenek eta agiri bidez justifikatu dezaketenek % 100 jasotzeko aukera izango dute, baita 12 urtera arteko haurrak dituzten gurasoek, langabezia daudenean eta merkataria-riak direnean ere.

Gainerako herritarrek, aldiz, matrikularen %75 jasoko dute ikasturte amaieran.

Izena emateko hainbat aukera

Informazio gehiago edo euskaltegiak apuratu nahi duenak kultur etxeko 2garren solairura gerturatu behar du. Edo bestela, 607 610 687 edo 688 746 639 telefonoetara deitu edo astigarraga@ae.k.eus helbidera idatzi dezake. **K**

Hernani Solidarioa ekimenarekin 31 familiarentzat lortu zen laguntza

Osasun larrialdia sortutako behar ekonomikoari aurre egiteko 7.175 euroko diru kopurua lortu zuten.

HERNANI HERNANI SOLIDARIOA

Osasun-larrialdiko egoeraren aurrean, eta etxean konfinatuta egondako hilabeteetan izandako galera ekonomikoari aurre egiteko, Hernani Solidarioa ekimenean parte hartzen duten elkarteak (Amher, Iglesia cristiana evangélica de Hernani, Stop Desahucios, Atawafok), beraien artean koordinatzeko eta funts solidario bat aktibatzeko beharra ikusi zuten. Helburua zen lana galdu zuten eta baliabiderik gabe zeuden pertsonen laguntza, oinarritzko beharrak asetzera.

Horretarako, dirua biltzeko kanpaina bat egin zen eta adierazi zuten, «herriaren esku zabaltasunari esker gauzatu zen». Guztira 7.175 euro bildu ziren eta horri esker, 31 familia-talderi lagundu ahal izan zitzaizkien, elikagai freskoak emanez: haragia, oilaskoa, arraina, higiene pertsonaleko gaiak, edota txartel mugikorren kargak, besteak beste.

Guztiagatik, Hernani solidarioa taldeek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza emateko parte hartu zuten banakako zein herriko komertzio guztiei. **K**

Guztiagatik, Hernani solidarioa taldeek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza emateko parte hartu zuten banakako zein herriko komertzio guztiei. **K**

Guztiagatik, Hernani solidarioa taldeek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza emateko parte hartu zuten banakako zein herriko komertzio guztiei. **K**



Joan den ostegunean egin zuten kazerolada herriko ostalariek.

Kazuelak kalera, «irtenbide eske»

HERNANI OSTALARITZA

Pasa den ostegunean, Hernaniko hainbat tabernari, zerbitzari eta bezero atera ziren herriko kaleetara, Eusko Jaurlaritzari «irtenbideak eskatu». Arratsaldeko 20:00etan bildu ziren Gudarien Plazan, eta kale buelta egin zuten, «kazuelak astinduz», aipatu moduan, Euskal Gobernuari, «ostalaritza borrokan dagoela azpimarratuz, eta irtenbideak behar dituztela jakinaraziz».

Zerbitzuak pixkanaka martxan, Goiz-Eguzkin

Momentu honetan taberna bakarrik dago zabalik, baina gainontzeko zerbitzuak laster jarriko dituzte, «berritasunekin».

HERNANI GOIZ-EGUZKI

Pandemia egoera dela eta Goiz Eguzki zerbitzu guztiak itxi behar izan zituen. Hala ere, pixkanaka berriro ere martxan jarriko direla jakinarazi dute bertakoek. Momentu honetan taberna bakarrik dago zabalik, baina adierazi dutenez, «laster hainbat zerbitzu jarriko ditugu martxan, berritasunekin gainera».

Bestalde, jakitera eman dute

Goiz Eguzki bazkideek 2020ko kuota ezingo dutela orain arte bezala ordaindu. Bakoitzak bere aurrezki-kutxa edo bankuan egin beharko du, traspasoa edo transferentzia bidez. Izan ere, egoeratik eskudirutan ordaintzea ezinezkoa dute.

Horregatik, Kutxako bezeroek 08:30etatik 10:30etara bitartean egin ahal izango dute ordainketa, ondorengo kontu korrante zenbakian: ES37 2095 5041 11 1065586736. Eta Laboraleko bezeroek, aldiz, 08:03etatik 12:00etara bitartean, ondorengo kontu korrantean: ES67 3035 0025 81 0251095272. Eta beste banku-erakundeetako bezeroak direnak, transferentzia bat egin dezakete, aldez aurretik aipatutako bi kontu horietako batera: Laboral edo Kutxara. **K**

Irteera gidatua egingo dute igande honetan

Santiomendi eta ekialdeko mugarrak ezagutzeko ibilbidea izango da, lau ordukoa. Interesa duenak aurretik eman behar du izena.

ASTIGARRAGA IRTEERA

Santiomendi eta ekialdeko mugak deritzon irteera gidatua da igandekoa, eta lau orduko iraupena izango du. Murgia Jauregitik abiatuko dira, goizeko 09:30etan. Irteerara joatera animatzen de-

nak izena eman behar du aurretik, donostialdea@behemendi.eus webgunean edo ondorengo telefono zenbakira deituta: 656 705 243. Goizeko 09:00etatik 15:00etara bitartean deitu daiteke.

Landaguneko eta gizartutako lurraldeak uztartzen diren ibilbidea da, eta paisaiak gozatzeko gain, mugarren historia eta Done Jakue Bidea ezagutzeko aukera izango dute bertaraten direnek. «Mugarik gabeko bidez gozatzeko aukera izango duzu», animatu dituzte herritarrak, ekimenean parte hartzeko. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak esku bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

XXXI. URTEURRENA

Juanito Oiarbide Aranburu
"Txilibita"
1989-09-16

Asko maite duenak
asko du jokuan,
zu maite zaitugunok
dakigun moduan,
Hogeita hamaika urte gaur
zu zinelu juan,
motz egiten da zutaz
oroitlaku.

ETXEKOAK

Ereñotzun, 2020ko irailaren 16an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**